


Etiketak



ANTTON OLARIAGA



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Ahaztu dudana poeta bati irakurri nion, gauzei lehen aldian bezala begiratzeko ahalmenean zetzala begirada poetikoaren berezitasuna, munduarekiko lehen kontaktuan haurrek daukaten harrituraren antzeko zerbait hori, nolabait esan.

Mundua ezagutu ahala, galdu egiten dugu gaitasun hori. Zerbait izendatzen dugun unetik ttipitu egiten da zerbait horren ñabardurak topatzeko aukera, izendapenak irudi finko batera garamatzalako, gure baitan eraiki dugun kontzeptura, eta interesera. Zertarako egingo dugu-eta bere izaeran gehiago arakatzeko ahalegina, jadanik *zer* den baldin badakigu?

Mundua izendatzeko etiketak ere erabiltzen ditugu. Baina, azalpen luzeen energia aurrezten laguntzen badute ere, ez ditugu guri buruzkoak sobera maite. Kalifikatu egiten gaituzte, definizio sinplifikatzaile eta estereotipatuen bidez kalifikatu ere, eta betierekotasun zentzu bat daukate, aldaketaren aukera ezinezko dela ematen duena aditzera, zeharka. Ustez garen horren definizioa egitean, izan behar garenaren profetia ere egiten da, gudanako espektatiba bat ezartzen. Pisu dira.

Pertsonen arteko harremanak etiketatzeke joera ere badugu, erlazio mo-

ten arabera sailkapena egitekoa. Eta harreman batean gertatzen denaren azalpen deskriptiboa emateko helburuarekin baizik egiten ez bada ere (ahizpa, ama, laguna, irakaslea, amorantea, bizilaguna, lankidea, edo bikotekidea), hor ere saihesti beharrekoa litzateke etiketen erabilera, tituluak karga handiegia duelako gure jokamoldean, eta efektu performatibo bat izaten dutelako gudan, harremanen forma estandarizatuen eta estereotipatuen arabera erlazionatzera eramaten gaituena. Kasik oharkabea, harreman-mota horren forma arautuan jokatu dugu, horrantz jotzen dutelako beti gure jokabide automatikoek, erreazio inkontzienteek eta oharkabeak pentsamenduek. Pertsona batekin dugun harremanean, lotura mota zein den baino erabakigarriagoa izan behar luke elkarrekin zer bizi nahi eta ahal dugun sentitzea, horren arabera elkarrekin eta geure neurria diseinatu ahal izateko erlazioaren forma.

Edonon ikus daiteke etiketek gudan duten zamaren pisua. Amatasunaz damutu diren emakumeen kasuan, esaterako, sozialki ezarria den amarol zurruna seinatzen dute haietarik askok, beren bizipen arazotsuaren arrazoi. Badute seme-alabekiko atxikimendua, jada existitzen diren neurrian

oso maite dituztelako, nola ez. Baina aitortzen dute nahiago zuketela rol estereotipotik atera ahal izan balira, eta bestela erlazionatu seme-alabekin.

Harreman mota estandarizatuak, gainera, asko eragozten dute pertsonekin sakonki topatu ahal izatea. Eskola munduan, adibidez, maiz gertatzen da ezberdin erlazionatzea ikasleekin ikasgela barruan ala kanpoan, nahi baino gehiagotan irensten duelako rola pertsonekin, eta roletik zaila delako *nor* garen hartzea batez ere aintzat, *zer* garen baino gehiago.

Harreman afektiboena da, behar bada, honek guztiak gehien eragiten duen esparrua. Gerta liteke, adibidez, lotura eta harreman on batean seguritatea sentitzeko zailtasuna edukitzea, zergatik eta etiketa zehatz batekin definitzen ez duelako erlazioa, *zer* diren argi ez dagoelako, alegia. Edo intimitate sexuala konpartitze hutsagatik, harreman baten gidoia erabat aldatu behar dela sentitzea, prestigioa eta bereizgarri hegemonikoa ematen duen bikote-etiketa goren bezalakoen tentazioagatik.

Agian, lagunen artekoa da karga sozial gutxien duen erlazioa, gutxien araututa dagoena. Bada, eman diezaiogun *lagun* etiketa gure maite-sareko jendeari. Hobe biziko gara? Libreago, bederen. ●